



**SALUD MENTAL
BURU OSASUNA**

EUSKADI *Fedeafes*

BURU OSASUNA EUSKADI FEDERAZIOKO ELKARTEAK ETA GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK



**BURU OSASUNA,
GJH en ZEHARKAKO
ELEMENTUA**

Federazioko elkarteekin
elkarlanean landutako
dokumentua:



Babesleak:

EUSKO JAURLARITZA

BERINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES



2022an argitaratua.

BURU OSASUNA EUSKADIK eta bere barne dauden elkarteek (Agifes, Asafes, Asasam eta Avifes) egindako dokumentua.

Inbikuren laguntza teknikoarekin.

Honakoen laguntza ekonomikoarekin:



Buru Osasuna Euskadi federazioa

Hiru Gurutzeta 14, Behea eskuina • Arza poligonoa • 01400 Laudio – Laudio Araba
www.fedeafes.org • fedeafes@fedeafes.org



Aintzatespena – Ez-komertziala (by-nc): Lan eratorriak sortzeko aukera ematen da, merkataritza-erabilerarik ez emateko baldintzarekin. Jatorrizko obra ere ezin da helburu komertzialekin erabili.

Aurkibidea

| | |
|--|-----------|
| Aurkezpena | 4 |
| Testuingurua | 6 |
| BURU OSASUNA EUSKADI FEDERAZIOARI DAGOKION TESTUINGURUA | 7 |
| 2030 AGENDA EUSKADIN | 8 |
| GJHak LORTZEKO ALIATUAK DIREN HIRUGARREN SEKTORE SOZIALEKO ERAGILEAK | 8 |
| BURU OSASUNA ZEHARKAKO ELEMENTU GISA GJHetan | 9 |
| BURU OSASUNA ERALDATZEA MUNDUA ERALDATU AHAL IZATEKO | 9 |
| Buru Osasuna Euskadi mugimendua eta GJHk | 11 |
| GJHak ETA DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN ESKUBIDEEN KONBENTZIOA | 11 |
| BURU OSASUNA EUSKADI ELKARTE-MUGIMENDUAREN GJH ESTRATEGIKOENAK | 13 |
| BURU OSASUNA EUSKADI MUGIMENDUAREN EKARPENAK GJHei DAGOKIENEZ | 19 |
| BURU OSASUNA EUSKADIREN ESKAERAK GJHei ETA 2030 AGENDARI DAGOKIONEZ | 27 |
| 2030 Agendaren eta GJHen gakoak gure ikuspegitik | 31 |
| Buru Osasuna Euskadiren konpromiso eta helburuak 2030 Agendari dagokionez | 32 |

Aurkezpena

2030 Agenda eta Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) 2015ean onartu zituen Nazio Batuen Erakundeak, pertsona guztientzako mundu bidezkoagoa eta hobea egiteko xedearekin. Agendak eta GJHeK pertsona, entitate eta erakunde guztioi eragiten digute.

Buru Osasuna Euskadi federazioa eta bere barne dauden elkarteak (Agifes, Asafes, Asasam eta Avifes) ez dira deialdi horretatik kanpo geratzen.

Dokumentu honetan garatutako hausnarketa-prozesuaren laburpen bat jasotzen dugu. Gure elkarteek modu naturalean gauzatzen dituzten 100 ekintza baino gehiago hauteman ditugu, horiekin GJHen garapenari laguntzen baitiogu Euskadin.

2030 Agendaren leloak berak, "INOR ATZEAN EZ UTZI", zerikusi handia du gure egunerokotasunarekin eta osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonen eta haien familien inguruan egiten dugun lanarekin.

Dokumentu honetan adierazten den bezala, GJHeKin bat datozen ekintzetan aurrera egiten jarraitzea da gure asmoa, helburu eta konpromiso zehatzak markatuz. Izan ere, 2030 Agendan aurrera egiteak zerikusi handia du pertsonen aukeraberdintasunean eta eskubideetan aurrera egitearekin.

Eskerrak eman nahi dizkiet hausnarketa-prozesu honetan parte hartu duten pertsona guztiei.

Eskerrik asko.

M^a Ángeles Arbaizagoitia
Buru Osasuna Euskadi federazioko presidentea

Testuingurua

Nazio Batuen Erakundeak 2015ean onartu zuen Garapen Jasangarriko 2030 Agenda. Agenda horren bidez, datozen urteetarako nazioarteko jarraibideak ezarri nahi dira garapenaren arloan, pobrezia amaiara emateko eta bakea, oparotasuna nahiz guztiontzako aukerak bermatze aldera pausoak emateko planeta osasuntsu batean. Agendak oinarri sendoa izan nahi du pobrezia desagerrarazteko, talde ahulei arreta emateko eta planetaren kontserbazioaren eta babesaren alde lan egiteko, datozen 15 urteetarako helburuak eta adierazleak zehaztuz.

Garapen Jasangarriko 17 Helburuek (GJH) borondate politiko zabala eta ekintza eskatzen dute inplikaturako alderdi guztien aldetik, gure gizartea zuzentzen duten sistemen eraldaketa handiak gauzatzeko. 2030 Agendak pertsona, entitate eta erakunde guztiei eragiten digu.

Garapen Jasangarriko Helburuak orokorrak dira, eremu guztiak hartzen dituzte eta honako printzipio hauetan oinarritzen dira:

- ✓ **Esperientzian oinarritua:** GJHak esperientzian eta Milurteko Garapen Helburuetatik (GJHen aitzindariak) ikasitakoan oinarritzen dira.
- ✓ **Garapen jasangarriaren ikuspegi multidimentsionala:** garapen iraunkorra, gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-bilakaerari lotutako ibilbide multzo gisa ulertuta.
- ✓ **Ez dute inor atzean uzten:** 2030 Agenda pertsona guztientzat da.
- ✓ **Izaera globala:** GJHek gure garaiko erronka global premiazkoenei heltzen diete. **Izaera unibertsala:** 2030 Agenda eta GJHak munduko herrialde guztietan aplikatzen dira, diru-sarreraren maila edozein dela ere.
- ✓ **Integraltasuna:** 2030 Agenda integrala da eta maila guztietan dago lotuta: helburuen artean, herrialdeen artean, eta mundu, herrialde zein eskualde mailan.
- ✓ **Inklusiboa:** Agendak gobernu-maila eta pertsona guztiak inplikatzeko dituen garapen iraunkorrerako ahalegin inklusibo eta kolektibo batean. Horri esker, 2030 Agenda garapen iraunkorrerako elkarte gisa funtzionatzen du mundu osoan.
- ✓ **Neurgarria:** Agendak bereziki azpimarratzen du jarduera eta emaitzak neurtzeko beharra, GJHen lorpena ebaluatzeko eta ikasgaiak nahiz gomendioak ateratzeko adierazle-multzo baten bidez.

GJHak funtsezko bost ardatzetan biltzen dira, Garapen Jasangarria lortzeko premisekin:

| NAZIO BATUEN ERAKUNDEAREN 2030 AGENDA  | |
|---|---|
| GARAPEN JASANGARRIAREN HELBURUAK (GJH) | ESFERA GARRANTZITSUAK |
| 17 | 5 |
| 1. Pobrezia desagerraraztea 2. Gosea desagerraraztea / elikadura 3. Bizimodu Osasuntsua 4. Hezkuntza inklusiboa 5. Genero-berdintasuna |  PERTSONAK |
| 6. Ura eta saneamendua 7. Kontsumo eta ekoizpen jasangarriak 8. Klima-aldaketa 9. Itsas ballabideak 10. Ekosistemak |  PLANETA |
| 11. Hazkunde ekonomikoa eta enplegua 12. Azpiegiturak eta berrikuntza 13. Energia 14. Desberdintasunak murriztea 15. Hiriak eta hiri-kokaguneak |  OPAROTASUNA |
| 16. Bakea eta Justizia |  BAKEA |
| 17. Aliantzak / Garapenerako lankidetzak |  LANKIDETZA |

BURU OSASUNA EUSKADIRI DAGOKION TESTUINGURUA

Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala ez dago deialdi horretatik kanpo, eta horren barruan daude Buru Osasuna Euskadi federazioaren inguruan bildutako elkarteak, osasun mentalarekiko eta pertsonen ongizatearekiko konpromisoan eta aukeraberdintasunarekiko konpromisoan erreferenteak diren erakunde gisa.

Hausnarketa horren aurrekari gisa, Buru Osasuna Euskadi elkarte-mugimendua 2030 Agendara gerturatu da, Espainiako Osasun Mentaleko Konfederazioan bildutako elkarte-mugimenduak egindako hurbilketaren bidez. Estatuko elkarte-mugimenduan 14 urte daramatzate lanean, Munduko Itunak osasun mentalaren arloan planteatzen dituen helburuekin konprometita. Garapen Jasangarriko Helburuak onartu zirenetik, Konfederazioak eta barne dituen elkarteek konpromiso sendoa hartu dute helburu horiek betetzeko. Espainiako Osasun Mentaleko Konfederazioaren 2019-2022 plan estrategikoan, ekintza guztiak GJHen adierazlearen arabera bideratzeko konpromisoa hartu zuten. Halaber, <https://saludmentalods.org> webgunea sortu dute. Bertan, Konfederazioa eta elkarteak helburu horiek lortzen laguntzeko garatzen ari diren ekintzak kontsulta daitezke.

Hausnarketa honen beste aurrekari bat, kasu honetan Euskadin, Sareen Sarea osatzen dugun hirugarren sektore sozialeko sareen hausnarketa bateratuaren bidez gertatu da. Gogoeta hori 'Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala 2030 Agendaren eta GJHen aurrean' dokumentuan islatu zen.

Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren hausnarketatik eta lan kolektibo horretatik abiatuta, Buru Osasuna Euskadik eta Agifes, Asafes, Asasam eta Avifes elkarteok arreta handiagoa eman nahi izan diogu osasun mentalari, baita zehaztasun gehiagorekin jorratu ere Garapen Jasangarriko Helburuekin lotutako jarduera, ekimen, proiektu eta politika guztiak. Horiek, hain zuzen ere, dagoeneko badute bide bat egina, aurretik abiarazi eta sakontasunez landu baititugu.

2022ko uztailetik urrira bitartean egindako hausnarketa-prozesu honetan prozedura bat ezarri da. Lehenik, Garapen Jasangarriko Helburuei eta 2030 Agendari buruzko oinarrizko prestakuntza egin da, eduki horiek profesionalei, Lehen Pertsonan Batzordeko kideei, emakumeen berdintasunaren arloko lagunei, zuzendaritza-batzordeko kideei eta Buru Osasuna Euskadi federazioko elkarteetako senitartekoei dakarkiena ezagutzeko.

Horri esker, hausnarketan inplikaturako pertsonak gertuagotik ezagutu ahal izan dituzte testuinguru historikoa, GJHen jarduera-esparrua eta Euskadirako 2030 Agenda propio baten edukiak.

Ondoren, hausnarketa saio eta dinamikak garatu dira, Buru Osasuna Euskadi osatzen duten erakunde guztien parte-hartzearekin. Horietan, GJHak aztertu dira, osasun mentalari dagokionez, eta euskal federazioko elkarteek jada lantzen dituzten GJHekin lotutako ekintzak eta lan-arloak balioetsi dira. Horrez gain, GJHen barruan lehentasunezko helburuak eta lan-ildoak ezarri dira, baita hainbat xede kolektibo ere, Buru Osasuna Euskadiko erakundeei laguntzeko GJH nagusiak lortzen eta 2030eko Agendarantz hurbiltzen. Azken xedea gizarte bidezkoago baterantz joatea da, eta osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonentzako eta haien familiakoentzako aukeraberdintasunean aurrera egitea.

Dokumentu honetan prozesu horren emaitza diren alderdi garrantzitsuenak jasotzen dira.

AGENDA 2030 EUSKADIN

Gure autonomia-erkidegoan, Gobernu Kontseiluak bere gain hartu du zeregin hori, eta, horregatik, Lehetasunen Programa bat bultzatu du 2030 Agendak Euskadirentzat duen garrantzia aitortzeko. Programa horren xedea da gizarte-kontratuaren kultura sustatzea, talde-pentsamoldearena –auzolana, elkarrizketan, lankidetzan, iraunkortasunean eta erantzunkidetasunean oinarrituta. Eta programa horren bidez, ezarritako helburuak lortzearen alde aurrera egitea. Programak 4 lehetasun ezartzen ditu: gizarte-dibulgazioa eta herritarren inplikazioa, elkarlaneko koordinazioa eta gobernantza, lerrokatzea, garapena eta ebaluazioa, eta trakzio-konpromisoak zein proiektu enblematikoak.

Eusko Jaurlaritzak, beste erakunde publiko batzuek, erakundeek eta pertsonak bultzatutako lehetasun-esparru horren barruan, helburu horiek lortzera bideratutako jarduerak garatzen ari dira. Buru Osasuna Euskadiko elkarteak eta, oro har, Hirugarren Sektorre Soziala 2030 Agenda eta GJHak gure lurraldean sustatzen dituzten erakundeen multzo horren parte dira, eta zeregin horietan lehen mailako erantzukizuna dute. Hori, berez, funtsezko tresna da gizarte-kohesioa egituratzeko, berdintasunean oinarritutako bizikidetzaren oinarria baita.

Euskadin dugun abiapuntu-egoera konplexua da. Errealitatea, gainera, larriagotu egin da azken urteotan bizi izan dugun osasun-larrialdiaren ondorioz. Garrantzitsuak dira pertsona zaurgarrienek pairatu dituzten ondorioak, eta, bereziki, osasun-arazoak dituzten pertsonak. Agerikoa da hori Buru Osasuna Euskadi federazioko elkarteek artatzen dituzten pertsonen artean.

Euskal gizartea osatzen dugun pertsona guztien, eta bereziki herritar zaurgarrienen, ongizatea hobetzeko zeregin anitzak ditugu egiteke. Politika publikoen garapen bidean ibilbide luzea dugu egiteke funtsezko sektoreei dagokienez, hala nola enplegua, etxebizitza, osasuna, hezkuntza edo gizarte-zerbitzuak. Aurrerapauso horien helburua izango da gizarte-babesa bermatzea eta gizarteratze eta gizarte-kohesio kuotak, berdintasuna nahiz eskubideen berme eraginkorra areagotzea.

GJHak LORTZEKO ALIATUAK DIREN HIRUGARREN SEKTORE SOZIALEKO ERAGILEAK

2022. urtearen hasieran, Euskadiko hirugarren sektore sozialeko sare guztiak biltzen dituen Sareen Sareak (eta Buru Osasuna Euskadik, horren barne dagoenez) Garapen Jasangarriekiko Helburuetara hurbildu eta posizionamendu bat egin zuen. Prozesu hori eredu izan genuen Buru Osasuna Euskadiren barruan ere posizionamendu espezifiko bat lantzeko.

‘Euskadiko Hirugarren Sektorre Soziala 2030 Agendaren eta GJHen aurrean’ dokumentuan jasotako hausnarketa partekatu horren ondorioz, 2030 Agendarekin lotutako ekintzak abian jartzeko inplikaturak dauden eragile guztiei deia egin zitzaion ekin, hitz egin, koordinatu eta konpromiso komunak hartu zitzaion. Gainera, erakundeek bultzatu eta landu beharreko gakotzat hartu ziren ardatz nagusien proposamen bat egin zen, 2030 Agendarako ibilbidea arrakastatsua izan dadin; guztiok izan behar dugu horren sustatzaile.

Bultzatu beharreko ardatz estrategiko horiek 2030 Agendako dekalogoan laburbiltzen dira:

- ✓ Arreta pertsonengan jartzea, inor atzean ez uzteko premisa nagusiarekin.
- ✓ Egungo eredu ekonomikoa aldatzeko palanka gisa balio behar du, pobrezia, desberdintasunak eta ingurumenaren suntsipena murriztuko dituen eredu baterantz.
- ✓ Euskadik koherentea izan behar du garapen jasangarriarekin, maila globalean.
- ✓ Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeen parte-hartzea eta gobernantza izan behar ditu, zeregin garrantzitsua baitu.
- ✓ Gizarte zibilaren inplikazioa eskatzen du, espazio parte-hartzaileak eta eragile anitzekoak sortuz.
- ✓ Tokiko ikuspegitik begiratuta, tokiko politika publiko eraginkorrak egin behar dira.
- ✓ Hausnarketa partekatuta batetik eraiki behar da.
- ✓ Funtsezkotzat jotzen dira eragin politikoa eta aliantzak, 2030 Agendan planteatzen diren helburu zorrotz eta garrantzitsuak gauzatzeko.
- ✓ Euskadiko 2030 Agenda, eta haren helburu bakoitza, segimendua egitea ahalbidetuko duten adierazle argiekin lotu behar da.
- ✓ Administrazioak Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeen esku jartzen dituen finantzaketa eta baliabideak funtsezkoak izango dira ekintzak eta planak gauzatu ahal izateko.

BURU OSASUNA ZEHARKAKO ELEMENTU GISA GJHetan

Gure hausnarketa-prozesuak, nola ez, osasun mentalean jartzen du arreta. Buru osasuna ez zegoen jasota aurretik landutako nazioarteko garapen-ekimenetan, hala nola Milurteko Garapen Helburuetan (MGH). 2015. urtea, hain zuzen, mugari garrantzitsua izan zen, buru osasuna lehen aldiz sartu baitzuten GJHetan.

Garrantzitsua da azpimarratzea berariaz aipatzen direla buru osasunarekin, ongizatearekin eta substantzien abusuarekin loturiko azpi-helburuak osasunari dagokion 3. helburuan: (3.4 eta 3.5 helburuak). Hala ere, osasun mentalak soilik 3. GJHrekin zerikusia duela pentsatzeko arriskua dago. Buru osasuna gainerako GJHekin lotuta dago, batzuekin zuzenago eta beste batzuekin zeharka. Horrela, osasun mentalaren eraldaketarako ahalmena azpimarratzen da, biztanleriaren ongizate-kuota handiagoak lortzen laguntzen baitu. Osasun mentala zeharkakoa da, eta GJH bakoitzean hartu behar da kontuan.

Garapenerako agenda integratu bat behar da, osasun mentala zentroan kokatzeko, bai bitarteko gisa, bai nazioarteko garapenerako helburu gisa. Hirugarren GJHan barneratutako aurrerapena dela uste dugu; hala ere, garapen jasangarriko helburuen potentziala aprobetxatu nahi bada, buru osasuna ardatz eragileetako bat izan behar dela deritzogu.

BURU OSASUNA ERALDATZEA MUNDUA ERALDATU AHAL IZATEKO

Garrantzitsua da osasun mentala kontuan hartzea, GJH guztietan inplikaturik baitago. Hasteko, buru osasunik gabe ez dago osasunik, eta, beraz, agerikoa da 3. GJHrekin (Osasuna eta Ongizatea) duen harremana, bizitza osasuntsua bermatzea eta adin

guztietako pertsona guztien ongizatea sustatzea baitu helburu. Baina, horrez gain, hezkuntza hobetzeko, desberdintasuna eta gatazkak murrizteko, hazkunde ekonomikoa bultzatzeko eta klima-aldaketari heltzeko, garrantzi handiagoa eman behar diogu osasun mentalari, eta arlo honek egun pairatzen duen bazterkeriari eta baliabide-gabeziari aurre egin.

OMEk honela definitzen du osasun mentala, gaixotasun mentalik ez izatea baino gehiago: «ongizate-egoera bat da, non gizabanako bakoitzak bere potentziala garatzen duen, bizitzako tentsioei aurre egin diezaiekeen, modu produktiboan eta emankorrean lan egin dezakeen, eta bere komunitateari ekarpena egin diezaiekeen».

Buru osasuna beste GJH gehienekin gurutzatzen da, eta eragina du haiengan. Pobrezia desagerraraztea (1. GJH), nutrizioa (2. GJH), osasuna (3. GJH), hezkuntza (4. GJH), emakumeen ahalduntzea (5. GJH), lan duina (8. GJH), hiri iraunkorrak (11. GJH), kontsumo iraunkorra (12. GJH), klima-aldaketa eta hondamendien ondorengo berreskurapena (13. GJH), gizarte baketsuak eta bidezkoak (16. GJH) eta elkarteak (17. GJH). Hori guztia osasun mentalarekin lotuta dago.

Hurrengo koadroaren bidez, osasun mentalak GJH bakoitzarekin duen harremana laburbiltzen dugu.

| GJH | BURU OSASUNAREKIN ETA ONGIZATEAREKIN LOTURA |
|---|---|
| 1. HELBURUA - <i>POBREZIAREN AMAIERA</i> | Osasuneko gizarte-baldintzatzaileek, hala nola pobreziak eta baliabide-eskasiak, eragin handia dute herritarren osasun mentalean eta ongizatean. |
| 2. HELBURUA - <i>ZERO GOSE</i> | Elikadura egokia funtsezkoa izango da pertsonen osasunerako, eta herritarren ongizate egokia eta buru osasunean eragingo du. |
| 3. HELBURUA - <i>OSASUNA ETA ONGIZATEA</i> | Helburu horretan berariaz aipatzen da ongizatea areagotzeko beharra; buru osasunarekin lotura gehien duen helburua da, eta bertan sartu dute, lehen aldiz, osasun mentala. |
| 4. HELBURUA - <i>KALITATEZKO HEZKUNTZA</i> | Osasun mentalaren sustapena eta hura kontserbatzeko ohitura osasungarriak kalitatezko hezkuntzan bameratu behar dira , etorkizuneko belaunaldiak erresilienteagoak izan daitezen eta ongizate handiagoa izan dezaten. Kalitatezko hezkuntzaz hitz egiteko, beharrezkoa izango da pertsona guztiek beharrezko laguntzak izatea, baita osasun mentaleko arazoak dituztenek ere. |
| 5. HELBURUA - <i>GENERO-BERDINTASUNA</i> | Genero-berdintasuna eta emakumeen eta nesken diskriminazioa desagerraraztea funtsezkoa da haien buru osasuna hobetzeko; halaber, emakumeen eta nesken aurkako indarkeriak osasun mentaleko arazoak sortu edo aurretiko nahasmenduak larriagotzen ditu. |
| 6. HELBURUA - <i>UR GARBIA ETA SANEAMENDUA</i> | Atal honen helburua bizi-baldintza duinak izatea da (higienea eta saneamendu irisgarria), eta, beraz, herritarren ongizatean eta osasun mentalean eragiten du. |
| 7. HELBURUA - <i>ENERGIA ESKURAGARRIA ETA EZ-KUTSATZAILEA</i> | Honen xedea personei bizitza erraztea da (energia eskuragarria), eta horrek eragina du biztanleen ongizatean. |
| 8. HELBURUA - <i>LAN DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA</i> | Lanaren prekarizazioak, estresak eta beste faktore batzuek zerikusi handia dute helburu honekin eta buru osasunarekin, eta langileen osasun mentalean dituzten ondorio negatiboekin. |
| 9. HELBURUA - <i>INDUSTRIA, BERRIKUNTZA ETA AZPIEGITURA</i> | Helburu horrek industrializazio inklusiboa eta jasangarria proposatzen du, edo IKTetarako sarbide unibertsala. Horrek guztiak eragina du planetan, osasunean eta pertsonen ongizatean. |
| 10. HELBURUA - <i>DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA</i> | Gizarteratze ezak edo aukera-berdintasun ezak eragina du pertsonen osasun mentalean eta ongizatean. |
| 11. HELBURUA - <i>HIRI ETA KOMUNITATE IRAUNKORRAK</i> | Helburu honek eragina du hirietako bizi-kalitatean eta pertsonen osasunean eta ongizatean. |
| 12. HELBURUA - <i>EKOIZPEN ETA KONTSUMO ARDURATSUAK</i> | Helburu horrek eragina du planetan eta personeen osasunean eta ongizatean. |

| | |
|---|---|
| 13. HELBURUA - KLIMAREN ALDEKO EKINTZA | Klima-aldaketak eragina du pertsonen buru osasunean. OMEk herrialdeei eskatzen die barne har dezatela osasun mentalaren babesa krisi klimatikoaren aurrean ¹ . |
| 14. HELBURUA - URPEKO BIZITZA | Helburu horrek eragina du planetan eta pertsonen osasunean eta ongizatean . |
| 15. HELBURUA - LURREKO EKOSISTEMEN BIZITZA | Osasunerako gune berde eta urdinek estresa murrizten dute, kontaktu soziala hobetzen dute, elkarrekintzak ahalbidetzen dituzte.... Hortaz, herritarren ongizatea eta buru osasuna hobetzeko bultzatu behar dira. |
| 16. HELBURUA - BAKEA, JUSTIZIA ETA ERAKUNDE SENDOAK | Helburu honek jorratzen dituen alderdietako batzuk indarkeriaren, tratu txarren eta esplotazioaren murrizketarekin lotuta daude, eta faktore horiek guztiek eragin argia dute herritarren osasun mentalean . |
| 17. HELBURUA - HELBURUAK LORTZEKO ALIANTZAK | Buru osasuna hobetzeko, beharrezkoa izango da politiken eta aliantzen koherentzia bermatzea eremu guztietan, biztanleriaren ongizaterako bidean aurrera egin ahal izateko, bai eta horretarako beharrezkoak diren baliabideak mobilizatzeko ere. |

Buru Osasuna Euskadi elkarte-mugimendua eta GJHak

Buru osasuna 2030 agendaren ardatz eragilea izan behar dela uste dugun lehen hausnarketa horren ondoren, Buru Osasuna Euskadi elkarte-mugimenduan jarriko dugu arreta.

Buru Osasuna Euskadi elkarte-mugimenduarentzat, GJHekiko konpromisoa modu naturalean egiten da. Elkarteek, aldez aurretik, sakontasun eta inplikazio handiko bidea egin dute Garapen Jasangarriko Helburu jakin batzuetarako oso garrantzitsuak diren ekintzetan. Izan ere, esan dezakegu 2030 agendaren leloa bera, 'Ez utzi inor atzean', elkarte-mugimenduaren DNAn bertan dagoela.

GJH-ak ETA DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN ESKUBIDEEN KONBENTZIOA

Gure misioaren xede diren pertsonen eta haien eskubideen defentsari erreparatuta, beharrezkotzat jotzen dugu Garapen Jasangarriko Helburuen eta Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideen Konbentzioaren arteko harremana ezartzea. Desgaitasuna duten Pertsonen Ordezkarier Espainiako Batzordeak (CERMI²) egindako lanean oinarrituta egiten dugu hori.

2030 Agenda eta Garapen Jasangarriko Helburuak (GJH) mundu mailako konpromisoa dira berdintasuna pertsona eta talde guztiengana iristeko errealitatea izan dadin. Aldi berean, beste aukera bat ere bada, desgaitasuna duten pertsonen eskubideen egoera oraindik ere larria dela adierazteko. Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideen Nazioarteko Konbentzioak berdintasuna eta desgaitasuna duten pertsonen eskubideak aitortzea du helburu. Azken hori Nazio Batuen Batzar Nagusiak onartu zuen 2006an.

¹ OMEk 2021ean 95 herrialdetan egin zuen inkesta baten arabera, horietako 9k bakarrik jaso zuten, ordura arte, osasun mentalekin eta alderdi psikosozialarekin loturiko laguntza osasun eta klima-aldaketari buruzko plan nazionala.

² Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideen Nazioarteko Konbentzioa eta Garapen Jasangarriko Helburuak - 2030eko agenda, 2019ko iraila, <https://cermi.es/es/actualidad/noticias/el-cermi-realiza-una-lectura-cruzada-de-los-ods-y-de-la-convenci%C3%B3n-de-la>

2008ko maiatzaren 3tik, Konbentzioak Estatuko ordenamendu juridikoaren zati da. Hau da, gure auzitegiek aplikatzeaz gain, oinarrizko eskubideak jasotzen, ezartzen eta hedatzen dituzten arauak ere hitzarmen honen argitan interpretatu behar dira.

Hitzarmen hori 2030 agendak indartzen du, lotura argia baitago GJHen zentzuaren eta Konbentzioaren xedearen artean.

Horrela, CERMIk egindako batzarraren helburuen eta artikuluen arteko lotura azalduko dugu koadro honetan:

| 2030 AGENDA | KONBENTZIOA |
|--|--|
| 1. HELBURUA- <i>POBREZIAREN AMAIERA</i> | 4. art. Betebehar orokorrak; 28. art. Bizi-maila egokia eta babes-soziala; 32. art. Nazioarteko lankidetzaz |
| 2. HELBURUA- ZERO <i>GOSE</i> | 4. art. Betebehar orokorrak; 28. art. Bizi-maila egokia eta babes-soziala; 32. art. Nazioarteko lankidetzaz |
| 3. HELBURUA - <i>OSASUNA ETA ONGIZATEA</i> | 10. art. Bizitzeko eskubidea; 16. art. Indarkeriaren eta abusuaren aurkako babesa; 25. art. Osasuna; 26. art. Habilitazioa eta errehabilitazioa |
| 4. HELBURUA - <i>KALITATEZKO HEZKUNTZA</i> | 5. art. Berdintasuna eta diskriminaziorik eza; 9. Art. Irisgarritasuna; 24. art. Hezkuntza inklusiboa; 30. art. Kultur arloan, jolas-jardueretan, aisialdian eta kirolean parte hartzea |
| 5. HELBURUA - <i>GENERO- BERDINTASUNA</i> | 5. art. Berdintasuna eta diskriminaziorik eza; 6. art. Desgaitasuna duten emakumeak; 7. art. Desgaitasuna duten haurrak; 16. art. Esplotazioaren, indarkeriaren eta abusuaren aurkako babesa; 17. art. Osotasun pertsonalaren babesa; 23. art. etxebizitza eta familia errespetatzea |
| 6. HELBURUA - <i>UR GARBIA ETA SANEAMENDUA</i> | 9. art. Irisgarritasuna; 25. art. Osasuna; 28. art. Bizi-maila egokia eta gizarte-babesa |
| 7. HELBURUA - <i>ENERGIA ESKURAGARRIA ETA EZ-KUTSATZAILEA</i> | 9. art. Irisgarritasuna; 25. art. Osasuna; 28. art. Bizi-maila egokia eta gizarte-babesa |
| 8. HELBURUA - <i>LAN DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA</i> | 19. art. Modu independentean bizitzeko eta komunitatean sartzeko eskubidea; 27. art. Lana eta enplegua; 28. art. Bizi-maila egokia eta gizarte-babesa |
| 9. HELBURUA - <i>INDUSTRIA, BERRIKUNTZA ETA AZPIEGITURA</i> | 9. art. Irisgarritasuna; 28. art. Bizi-maila egokia eta gizarte-babesa |
| 10. HELBURUA - <i>DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA</i> | 3. art. Printzipio orokorrak; 5. art. Berdintasuna eta diskriminaziorik eza; 6. art. Desgaitasuna duten emakumeak; 8. art. Kontzientzia-hartzea; 32. art. Nazioarteko lankidetzaz |
| 11. HELBURUA - <i>HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK</i> | 9. art. Irisgarritasuna; 20. art. Mugikortasun pertsonala |
| 12. HELBURUA - <i>EKOIZPEN ETA KONTSUMO ARDURATSUAK</i> | 9. art. Irisgarritasuna |
| 13. HELBURUA - <i>KLIMAREN ALDEKO EKINTZA</i> | 9. art. Irisgarritasuna; 11. art. Arrisku-egoerak eta larrialdi humanitarioa; 25. art. Osasuna |
| 14. HELBURUA - <i>URPEKO BIZITZA</i> | Art.25. Osasuna |
| 15. HELBURUA - <i>LURREKO EKOSISTEMEN BIZITZA</i> | 11. art. Arrisku-egoerak eta larrialdi humanitarioa; 25. art. Osasuna |

| | |
|--|---|
| 16. HELBURUA - <i>BAKEA, JUSTIZIA ETA ERAKUNDE SENDOAK</i> | 8. art. Kontzientzia-hartzea; 12. art. Nortasun juridikoa aitortzeko eskubidea; 13. art. Justiziarako sarbidea; 29. art. Bizitza politikoan eta publikoan parte hartzea; 32. art. Nazioarteko lankidetzatza |
| 17. HELBURUA - <i>HELBURUAK LORTZEKO ALIANTZAK</i> | 4. art. Betebehar orokorrak; 8. art. Kontzientzia-hartzea; 32. art. Nazioarteko lankidetzatza |


CERMIk proposatutakoarekin bat gatoz: 2030 agendak Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideen Nazioarteko Konbentzioaren mandatu, balio eta printzipioez hornitu behar du. Zalantzarik gabe, berdintasun- eta oparotasun-maila handiagoak gizarte inklusiboetan sustatzeko aukera dugu, baina ezin dira egin desgaitasunen bat duten pertsonen, haien familien eta elkartearen laguntzarik eta ekarpenik gabe, Buru Osasuna Euskadi Elkarte-Mugimenduarenak, besteak beste.

BURU OSASUNA EUSKADI ELKARTE-MUGIMENDUAREN GJH ESTRATEGIKOENAK

Buru Osasuna Euskadiko kide diren elkarteek ibilbide sakona eta inplikazio handia dute garapen jasangarriko helburu jakin batzuetarako oso garrantzitsuak diren ekintzetan.

Aurrerago, dokumentu honetan bertan, GJHetako batzuetan gauzatzen diren ekintzak modu laburtuan identifikatzen badira ere, beharrezkoa da Buru Osasun Euskadiko helburu garrantzitsuenetan alde aurretik arreta jartzea, beren nortasun eta jarduerarengatik.

Horretarako, txosten honek jasotzen duen hausnarketa-prozesurako markatutako identifikazio eta lehen tasun fluxuaren metodologia jarraitu da: *Identifikazioa - Garrantzia ebaluatzea - Inpaktu maila dimentsionatzea - Proiektu garrantzitsuak identifikatzea - Adierazleak ezartzea.*



Prozesu horren ondorioz, Buru Osasuna Euskadiko kide diren elkarteek beren eguneroko jardueran gauzatzen dituzten ekintza, politika edo lan-ardatz ugari identifikatu dira, baita horietako profesionalen, boluntarioen, buru osasuneko arazoak dituzten pertsonen eta laguntza sareko kide diren familien inplikazioa ere.

Buru Osasuna Euskadi elkarteentzat 8 GJH dira estrategikoenak, gure jardueraren izaeragatik eta gure kolektiboari arreta emateko bokazioagatik eta tipologiagatik:



1 GHJ- POBREZIAREN AMAIERA
3 GHJ - OSASUNA ETA ONGIZATEA
4 GHJ - KALITATEZKO HEZKUNTZA
5 GHJ - GENERO-BERDINTASUNA
8 GHJ - LAN DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA
10 GHJ - DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA
16 GHJ - BAKEA, JUSTIZIA ETA ERAKUNDE SENDOAK
17 GHJ - HELBURUAK LORTZEKO ALIANTZAK

Arrazoi asko daude GJH horiek Buru Osasuna Euskadirako estrategikotzat jotzeko. Jarraian, horietako bakoitzari buruzko parentesia egingo dugu.



1 GHJ- POBREZIAREN AMAIERA

Helburua pobrezia-amaiera ematea da, bere forma guztietan eta mundu osoan. Lantzen dituen alderdi batzuk honako hauekin lotuta daude: muturreko pobrezia, pobrezia oro har eta zaurgarritasuna, gizarte-babesa, baliabide ekonomikoak izateko eta oinarrizko zerbitzuak jasotzeko eskubidea, eta pertsona behartsuen eta zaurgarrien erresilientzia klimarekin eta beste hondamendi ekonomiko, sozial eta ingurumeneko batzuekin lotutako muturreko fenomenoaren aurrean.

Buru osasunaren alde konprometitutako elkarteak garenez, beharrezkotzat jotzen dugu osasunaren determinatzaile sozialak kontuan hartzea. Pobreziaren kasuan, hainbat azterlanek pertsonen buru osasun duen eragin negatiboa aztertzen dute. Horregatik, funtsezkoa iruditzen zaigu helburu horretan eragitea. Gainera, gizarte-bazterketa larria duten etxerik gabeko pertsonen ehuneko handi batek buru nahasmenduren bat du.

Bestalde, Buru Osasuna Euskadiko elkarteak artatzen dituzten pertsonen ehuneko handi batek pobrezia-arrisku handiagoa du. Ehuneko handi batean, kotizazio gabeko pentsioen, ardurapeko seme-alaben prestazioen edo DSBE bezalako laguntzen mende daude. Horri guztiari diru-sarrera txikiak dituzten gizarte-baliabideengatik aurre egin behar dieten koordainketa publikoak gehitu behar zaizkio (tutoretzapeko etxebizitza, eguneko zentroak, etab.).

Helburu hori funtsezkoa da Buru Osasuna Euskadi eta bere elkarteetarako, osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonen eta haien familien bizi-kalitatea hobetzea baitu helburu. Ildo horretan, Buru Osasuna Euskadi elkarte-mugimenduan baliabide garrantzitsuak inbertitzen dira politika publikoetan, osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonen egoera ekonomikoa hobetzeko. Horretarako, hainbat eremutan jarduten dugu:

parte hartzen dugun foroetan salaketa publikoa eginez, kasu hauetan aplikatutako araei ekarpenak eginez, eta ekarpenen atalean azaltzen diren ekintza zehatzekin.



3 GHJ - OSASUNA ETA ONGIZATEA

Helburu hau bizitza osasuntsua bermatzera eta adin guztietako pertsonen ongizatea sustatzera bideratuta dago.

Artatzen ditugun pertsonen eta familien osasuna eta ongizatea dira gure jardueraren ardatza. Hori da Buru Osasuna Euskadiko misioarekin eta haren elkarteekin lotura handiena duen GJHa. Elkarte-mugimenduak konpromiso berezia du helburu horrekin, pertsona guztien osasuna eta ongizatea zaintzea aldarrikatzen baitu, kalitatezko buru osasuna lortzeko lehentasunezko bide gisa.

Buru Osasuna Euskadi eta bere elkarteak jakitun dira beren gain hartzen duten eginkizun eragileaz, dibulgazioaren, sustapenaren eta eraginaren barruan, buru osasuneko arazoak dituzten pertsonen eta haien senideen osasunarekin eta ongizatearekin lotutako guztia bultzatzen eta laguntzen duten politikak eta lan-eremuak sustatze aldera.

Ekarpenei buruzko atalean aipatzen diren ekintzez gain, foku horren adibide dira elkarteek egindako dokumentu ugari, baita azken urteotan zabaldu diren elkarteek eta Federazioak elkarrekin egindako txostenak eta azterlanak ere. Horietan, gainera, kolektiboari arreta ematen dioten hainbat eremu lagundu eta koordinatu nahi dira. Bizi-kalitatea hobetzea helburu duten elkarrekin egindako lan batzuk:

- [Buru gaixotasuna duten pertsonen arreta bizi-kalitatearen ikuspegitik](#) (2015ean argitaratua)
- [Euskadin buru gaixotasuna duten pertsonekin gizarte eta osasun esparruetan esku hartzeko eta lan koordinatua egiteko bide hoberenak](#) (2015ean argitaratua)
- [EAEko gizarte eta osasun baliabideen eskaintzaren analisia](#) (2019an argitaratua)
- [Buru osasun arazoak EAEko haur, nerabe eta gazteen artean](#) (2021ean argitaratua)



4 GHJ - KALITATEZKO HEZKUNTZA

Helburua da kalitatezko hezkuntza inklusiboa eta ekitatiboa bermatzea, eta guztiontzako etengabeko ikaskuntzarako aukerak sustatzea.

Helburu hori funtsezkoa da, halaber, Buru Osasuna Euskadi Elkarte-Mugimenduarentzat, bi zentzutan. Alde batetik, buru osasunarekin dugun konpromisoagatik, hezkuntza-komunitatea buru osasuneko edozein arazo prebenitzeko eremu aproposa baita. Gainera, eremu egokia da osasun mentala sustatzeko eta horren inguruan sentibilizatzeko, eta hezkuntza emozional onaren oinarriak ezartzeko, buru osasunari duen garrantzia emanez eta, horrela, populazio erresilienteagoak sortzen lagunduz.

Bestalde, helburu hori funtsezkoa da artatzen ditugun adingabeentzat eta gazteentzat; izan ere, kalitatezko hezkuntza jasotzeko eskubidea dute, behar dituzten laguntzekin, eta

Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideen Nazioarteko Konbentzioaren 24. artikulua aitpatzen dituen doikuntzekin.

Ildo horretan, buru osasuneko elkarteek hainbat ekintza egiten dituzte helburu horrekin lotuta, hala nola ikastetxeetan sentsibilizatzeko ekintzak, adingabe eta gazteentzako programa espezifikoak, gurasoei laguntzeko programak.



5 GHJ - GENERO-BERDINTASUNA

Helburua genero-berdintasuna lortzea eta emakume eta neska guztiak ahalduntzea da. Helburu honek jorratzen dituen alderdietako batzuk honako hauekin lotuta daude: emakumeen eta nesken aurkako diskriminazio- eta indarkeria-mota guztien amaierarekin, zainketen eta ordaindu gabeko etxeko lanen aintzatespenarekin, erantzukizun partekatuekin, aukera-berdintasunarekin, emakumeen parte-hartze osoarekin eta eraginkorrarekin, eta bizitza politiko, ekonomiko eta publikoan erabakiak hartzen dituzten maila guztietako lidergo-aukeren berdintasunarekin, ugalketa-eskubideekin, baliabide ekonomikoetarako eskubide-berdintasunarekin eta lurra, beste ondasun batzuk eta jabetza eskuratzearekin.

Buru Osasuna Euskadi osatzen duten elkarteak motore eta eredu dira genero-berdintasunaren eta emakumeen aurkako indarkeriarik ezaren aldeko konpromisoan. Izan ere, Emakunde, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako erakunde laguntzaileak aitortu ditu. Konpromiso hori berdintasun-planak ezarrita dituzten erakundeen antolaketan eta egituraren bertan ageri da. Hirugarren sektore sozialaren eremua sektore feminizatua da, baina hirugarren sektoreko beste erakunde batzuetan ez bezala, Buru Osasuna Euskadiko elkarteetan emakumeen ahalduntzearekin konpromiso nabarmena dago, ardura duten lanpostu gehienak emakumeek ere betetzen dituzten antolaketa-egitura batean.

Buru Osasuna Euskadi Elkarte-Mugimenduak genero-ikuspegitik artatzen ditu buru osasuneko arazoak dituzten emakumeak eta gizonak, egiten diren jardueretan eta ekintzetan. Era berean, osasun mentaleko arazoak dituzten emakumeak ahalduntzeko ekintza-ildoak mantentzen ditu, hainbat tresnaren bidez: emakumeen taldea, emakumeen eta gizonen prestakuntza, Federazioko emakumeen berdintasunerako arloa edo Espainiako Osasun Mentaleko Konfederazioko emakumeen sarea.

Buru Osasuna Euskadiko eta bere elkarteetarako beste arlo esanguratsu bat buru osasuneko arazoak dituzten emakumeen aurkako indarkeria da. Ildo horretan, Euskadin ez ezik, Estatu osoan ere errealitate hori agerian jartzea lortu duten hainbat ekintza eta ikerketa egin dira: ikusgaitasun eta salaketa ekintzak, baita emakumeen errealitateaz sentsibilizatzekoak ere.

Emakume horietan hainbat ardatz diskriminatzaile elkartzen dira (gaixotasuna, mendekotasuna, desgaitasuna, estigma, eta bazterkeria handieneko kasu batzuetan beste faktore batzuk nahasten dira).

Horregatik, Buru Osasuna Euskadiko elkarteak beren ingurune eta ekintza-eremuetan genero-berdintasunaren alde sortzen diren mugimendu, ekintza eta politiken partaide aktibo eta bultzatzaile dira.

Foku horren adibide dira, ohiko Buru Osasuna eta Emakumearen kanpainez gain, azken urteetan zabaldutako hainbat txosten, ikerketa eta azterlan. Horietan, praxi onen dibulgazio- eta informazio-lana egiteaz gain, emakumearen ahalduntzeari eta emakume horiek artatzen dituzten profesionaleri eta inguruneei tresnak eskaintzeari eusten zaio beti. Federaziotik elkarte guztiek egindako material batzuk:

- [Fedeafeseko emakume eta gizonen parekidetasunaren aurrean duten egoeraren diagnostikoa](#) (2014an argitaratua).
- [Buru gaixotasuna duten emakumeen jabekuntza](#) (2014an argitaratua).
- [Buru gaixotasuna duten emakumeak eta genero indarkeria, bereziki kaltegabea den kolektibo bati laguntzeko proposamenak](#) (2014an argitaratua).
- Ikerketa-eremua - [Buru gaixotasuna duten emakumeen aurkako indarkeriari buruzko ikerketa](#) (2015ean argitaratua).
- [Buru gaixotasuna duten emakumeen aurkako indarkeriari buruzko gida](#) (2017an argitaratua).



8 GHJ - LAN DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA

Helburu honen xedea hazkunde ekonomiko iraunkorra, inklusiboa eta jasangarria, enplegu osoa eta produktiboa, eta guztiontzako lan duina sustatzea da. Helburu honek jorrotzen dituen alderdietako batzuk honako hauekin lotuta daude: hazkunde ekonomikoa, dibertsifikazioa, modernizazio teknologikoa eta berrikuntza, lan duina, enplegu osoa eta produktiboa, ekintzaitza, mikroenpresen eta ETEen sustapena, turismo jasangarriarekin eta tokiko ekoizpenarekin lotutako lana, lan-eskubideak, lan-ingurune seguruak, gazteen enplegua, aukera- eta ordainsari-berdintasuna, finantza-erakundeen indartzea eta hazkunde ekonomikoa ingurumenaren degradaziotik bereiztea.

Buru Osasunarekin konprometitutako elkarteak garenez, helburu hori garrantzitsua da herritarren osasun mentala sustatzeko, lan duina funtsezkoa baita pertsonak ongizate handiagoa izan dezaten. Funtsezkoa da buru osasunak leku garrantzitsua izatea enpleguaren eremuan, eta osasun mentalean eragina izan dezaketen arrisku psikosozialak prebenitzea. Beste alderdi esanguratsu bat lan-prekarietatearekin eta pertsoneri duintasunez bizitzeko aukera emango dien lan eta soldata egoki baten behararekin lotuta dago. Horrek, zalantzarik gabe, pertsona horien ongizatea hobetzea ekarriko du.

Helburu horrek aukera-berdintasunean ere eragina du. Lana eta baliabide propioak eskuratzea buru osasuneko arazoak dituzten pertsonak gizarteratzeko oinarrietako bat da. Horregatik, Buru Osasuna Euskadiko elkarteek sustatu eta kudeatutako enplegu-programetatik ahalegin handia egiten da buru nahasmendua duten pertsoneri enplegu inklusiboa lortzeko prestakuntza, gaikuntza, laguntza eta erraztasunak eskaintzeko. Era berean, buru osasuneko arazoak dituzten pertsonentzako aukera-berdintasuna azpimarratzen eta aldarrikatzen duen eremua da.

Ilido horretan, Buru Osasuna Euskadik eta bere elkarteek ikerketaren bidez enplegua sustatzeko alderdi erlatiboak eta eragingarriak jorrotatu zituzten:

- [Gaixotasun mentala duten pertsonak ahalduntzen, enplegu-sustapenaren bidez](#) (2016an argitaratua).

Azterlan honetan, Buru Osasuna Euskadi artatzen duen kolektiboaren enplegurako beharrezkoak eta eskura dauden baliabide guztiak aztertzen dira, eta buru nahasmendua duten pertsonen enplegagarritasuna eta lan-aukerak hobetzeko faktore, gako eta erronka nagusiak planteatzen dira.

Ondoren, Buru Osasuna Euskadik eta bere elkarteek gizarteratzeko eta laneratzeko praktika egokiak identifikatzeko azterlan espezifiko bat sustatu dute:

- [Praktika egokiak buru osasun arazoak dituzten pertsonen gizarteratzean eta laneratzean](#) (2017an argitaratua).

Azterlan honetan, buru osasuneko arazoak dituzten pertsonen enplegagarritasuna areagotzeko dauden praktika egokiak identifikatzen dira, Euskadin ezartzeko ideiarekin.



GJH 10 - DESBERDINTASUNAREN MURRIZKETA

Helburu honen bidean, hainbat arlo jorratzen dira: pertsona guztien gizarteratzea, ekonomia eta politika sustatzea, aukera-berdintasuna, berdintasunerako zerga-politikak, soldata-politikak eta gizarte-babeseakoak, antolatutako migrazioa eta mugikortasuna erraztea, garapenerako laguntza ofiziala eta munduko erakunde eta merkatuen araudia eta zaintza.

Helburu horrek zerikusia handia du elkartearen egunerokotasunarekin. Beren proiektu eta ekintzen bidez, elkarteek buru osasun arazoak dituzten pertsonak hainbat esparrutan gizarteratzea bilatzen dute, enplegu-proiektuen, hainbat motatako ekintza komunitarioen eta abarren bidez.

Beste jarduera-eremu garrantzitsu bat eskubideak defendatzeko eta sustatzeko ekintzak dira. Elkarte-mugimenduak buruko gaixotasunei lotutako estigmak eragiten duen diskriminazioa aztertu zuen, baita pertsonen eta haien familien bizi-kalitatean eta aukera-berdintasunean nola eragiten duen ere. 2014an, '[Estigma sozialaren errealitatea EAEn buru gaixotasuna duten pertsonen artean](#)' izenburudun ikerketa egin zen. Ikerketa horretan, estigma sozialak pertsonen bizi-kalitatearen dimentsio guztiei eragiten diela finkatzen da, eta estigmatz ari garenean diskriminazioaz ari garela, pertsonen eskubideekin zerikusia duen gaia dela.

Azterlan hau egin genuenetik behin eta berriz aldarrikatu dugu erakundearen eta sailen arteko estrategia bat egin behar dela, estigma desagerrarazteko ekintzak egiteko eta, horrela, desberdintasuna murrizteko.



GJH 16 - BAKEA, JUSTIZIA ETA ERAKUNDE SOLIDOAK

Helburu horren bidez, garapen jasangarrirako gizarte baketsuak eta inklusiboak sustatu nahi dira, justiziarako sarbidea erraztu nahi zaie guztiei, eta erakunde eraginkorrak eta inklusiboak eraiki nahi dira maila guztietan. Helburu honek jorratzen dituen alderdietako batzuk honako hauekin lotuta daude: indarkeria murriztea, tratu txarrak eta esplotazioa, zuzenbide-estatua, justiziara iristeko berdintasuna, ustelkeria eta eroskeria murriztea, erakunde eraginkor eta gardenak, kontuak ematea, parte hartzea eta informazioa eskuratzea, eta oinarrizko askatasunak babestea.

Buru osasunarekin konprometitutako erakundeak direnez, helburu hori garrantzitsua da herritarren osasun mentala hobetzeko, indarkeria eta tratu txarrak murrizteko, esplotazioa ardatz garrantzitsuak izango dira osasun mentaleko arazoak prebenitzeko eta pertsonen ongizate handiagoa izateko.

Gure jarduera-eremutik ere kezkatzen gaitu justiziara aukera-berdintasunez iristeak, gerta daitezkeen egoera guztietan. Horretarako, kasu jakin batzuetan, beharrezkoa izango da informazioa eskuratzea, eta, horretarako, beharrezkoa izango da administrazioen hizkera erraza eta ulerterraza izatea. Bestalde, kasu jakin batzuetan beharrezkoa izango da pertsonen sistema judizialaren barruan laguntza izatea, eta beharrezkoa izango da bideratzailea izatea osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonen sistema judizialera sartzen laguntzeko.



GJH 17 - HELBURUAK LORTZEKO ALIANTZAK

Helburua, Garapen Iraunkorrerako Munduko Aliantza ezartzeko eta biziberritzeko bitartekoak indartzea da. Helburu honek jorratzen dituen alderdietako batzuk honako hauekin lotuta daude: baliabideak mobilizatzea eta garapenerako laguntza-konpromisoak betetzea, garapen jasangarrirako politiken koherentzia, garapen-bidean dauden herrialdeei emandako gaitasuna sortzen laguntzea, datu egokiak eta kalitatezkoak eskuratzeko.

Buru Osasuna Euskadi federazioko elkarteak eta bere erakundeak, jakitun dira aliantzek duten garrantziaz, 2030eko Agendari begira planteatzen diren helburuak lortzeko. Aliantzak ez ezik, eragin politikoa gauzatzeko espazio eta foro egokiak sortzea ere kontuan hartu behar da, baliabideak, akordioak eta erabakiak mugitzen laguntzeko, eta, hartara, ahalik eta lasterren buru osasun arazoak dituzten pertsonen eskura ahalik eta konponbide eta laguntza gehien jartzeko.

Buru Osasuna Euskadi federazioko elkarteak eta bere erakundeek hainbat forotan engaiatzeko eta inplikatzeko erabiltzen dituzten baliabideak aliantzak sortzeko eta mugimendu komun horretan laguntzeko ahalegin eta konpromiso horren erakusgarri dira. Ekarpenean atalean, horien adibide batzuk ematen dira, hala nola hirugarren sektoreko hainbat saretan parte hartzea, desgaitasuna, patronala, enplegua, administrazioko maila desberdinekiko lankidetzak, administrazioko foro, mahai eta batzordeetan parte hartzea, unibertsitateekin eta hainbat eragilerekin lankidetzan aritzea.

BURU OSASUNA EUSKADI ELKARTEAK GJHei EGINDAKO EKARPENAK

Atal honetan zehazten dira elkarte-mugimenduak GJH bakoitzeko egiten dituen ekarpen, ekintza eta lan-ardatz garrantzitsuenetako batzuk, bai elkartutako erakundeak, bai federazioa bera, ezin dira ekintza guztiak adierazi, baina bai, behintzat, esanguratsuenak.



1. Buru Osasuna Euskadi federazioko elkarteak baliabide urriak dituzten pertsonekin lan egiten du. Gainera, buru osasun arazoak dituzten pertsona jakin batzuen gizarte-bazterketa eta pobrezia saihesteko programak sustatzen ditu.
2. Buru Osasuna Euskadi federazoko elkarteak enplegu-programak sustatu eta kudeatzen ditu (enplegu-zentro bereziak zein enplegu arrunt lagundua), eta horrek zuzeneko eragina du artatutako pertsonen enplegagarritasunean eta bizi-baldintza hobekuntzaren aldetan.
3. Enplegagarritasuna hobetzeko prestakuntza ematen da. Oinarrizko zeharkako, gizarteko eta laneko gaitasunak.
4. Baliabiderik ez duten pertsonentzako etxebizitza-programak, etxebizitza eskuratzeko lehen aukera ematen du. Erakundeek etxebizitzak alokatzen dituzte, diru-sarrera mailaren arabera eskuratu ezin duten kolektiboko pertsonen sarbidea emateko.
5. Erabiltzaileen eskura jartzen diren zerbitzuak doan egiten dira, baliabiderik ez duten eta zerbitzua eskuratu ezin duten pertsonen sarbidea bermatzeko. Erabiltzaileen eskura jartzen diren zerbitzuak doan egiten dira, baliabiderik ez duten eta zerbitzua eskuratu ezin duten pertsonen sarbidea bermatzeko.
6. Eragin politikoa buru osasun arazoak dituzten pertsonen egoera ekonomikoa hobetzeko (parte-hartze aktiboa baliabide ekonomikoetan eragiten duten legegintza-proiektuetan, hala nola DSBE, gizareratze-plana eta abar).



1. Etxebizitza-programaren barruan, hileko esleipen espezifiko bat ezartzen da elikadura bermatzeko, hura erabiltzeko hezkuntza-laguntza emanez.
2. Etxebizitza-programaren barruan, menu osasungarriak eta elikagarriak lantzen dira, espezialista baten gomendioarekin.
3. Erakundeek baliabideen aprobetxamendua sustatzen dute.
4. Erakundeek lankidetzak dute elikagaien bankuarekin edo antzekoekin.



1. Buru osasun arazoak dituzten pertsonentzako eta haien familientzako programen, zerbitzuen eta baliabideen eskaintza zabala eta askotarikoa abian jartzea (hala nola eguneko zentroak, zentro okupazionalak, egoitza-baliabideak, bizitza independentea babesteko programak, aisialdi-programak, laguntza psikologikoko programak eta abar).
2. Kalteberatasun-egoeran dauden kolektiboentzako programak (emakumeak, haur eta gazteak, espetxeetan dauden pertsonak, etab.)

3. Talde profesionalen ongizatea aktiboki lantzen da, lan-baldintzak zainduz eta prestakuntza, estresaren kudeaketa eta antzeko neurriekin.
4. Sentsibilizazio-kanpainak, herritarrak oro har buru osasuna sustatzeko.
5. Familientzako programak, familien eskolaren adibidea: helburua "zaintzaileak zaintzea". Senideei autozainketan laguntzea.
6. Suizidioa prebenitzeko berariazko programak abian jartzea.
7. Familiek eta gaixotasun mentala duten pertsonen ordezkaritza garrantzitsua dute gobernu-organoan. Sentsibilizazio- eta transmisio-programa guztietan integratutako familiak.
8. Hainbat ikerketa eta argitalpen, osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonen eta haien bizi-kalitatea hainbat ikuspegitatik hobetzeari buruzkoak (emakumea, haur eta gazteak, aisialdia, bizi-kalitatea, etab.).
9. Buru osasun arazoen buruzko jardunaldi eta hitzaldiak.



1. Proiektuak, buru osasun arazoak dituzten pertsonen enplegurako beharrezko gaitasunak eskura ditzaten.
2. Buru osasun arazoak dituzten haur, nerabe eta gazteen buruzko azterlanak eta ikerketak, hezkuntza-esparruan hobekuntzak proposatuz.
3. Ikastetxeetan programak egitea, buru osasun arazoak prebenitzeko eta sentsibilizatzeko.
4. Ikasketak utzi dituzten pertsonen laguntzea, etab.
5. Profesionalak eta boluntarioak prestatzeko urteko programak.
6. Buru osasun arazoak dituzten adingabeentzako beharrezko laguntzen gaineko eragina.
7. Landa-inguruneen ikastetxeetako programetan suizidioak prebenitzeko proiektu pilotua.



1. Profesionalentzako genero-prestakuntzako berariazko programak.
2. Berdintasun-plana erakunde guztietan, lau urtean behin berrikusita.
3. Emakundek Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako erakunde laguntzaileak aitortzea.
4. Hizkuntza inklusiboa sustatzea.
5. Jazarpen-protokoloak jasotzea berdintasun-planean.
6. Ordainsari-auditoretza egitea, erakundeen ordainsari-sistemak, zeharka eta osorik, ordainsarien arloan emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioa benetan aplikatzen duen egiaztatzeko beharrezkoa den informazioa lortzek

7. Kontziliazio-politikak erakunde guztietan, lan-malgutasuna eta erraztasunak.
8. Buru Osasun Arazoak dituzten gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari buruzko ikerketa espezifikoak.
9. Buru osasun arazoa duten emakumeen aurkako indarkeriari buruzko ikerketa espezifikoak.
10. Erakundeekin lankidetzan aritzea, desgaitasuna duten emakumeentzako materialak egiteko.
11. Elkartetako emakume-taldeak.
12. Emakumeen berdintasunerako arloa Federazioan.
13. Landa-eremuan buru osasun arazoak dituzten emakumeen ahalduntzeari buruzko Hub Genera estatu-proiektuan parte hartzea.
14. Espainiako Osasun Mentaleko Konfederazioko Emakumeen Estatuko Sarea.
15. Prestakuntza, buru osasun arazoak dituzten emakumeei buruzko hitzaldiak hainbat erakunde-eremutan (ahalduntze eskola feministak, Emakunde) eta hirugarren sektoreko erakundeetan.
16. Emakumeentzako prestakuntza hainbat arlori buruz (berdintasuna, hizkuntza inklusiboa, indarkeria antzemateko modua, maitasun erromantikoa)
17. Buru osasun arazoak dituzten gizonei zuzendutako maskulinitate berriei buruzko hainbat formakuntza-edizio.
18. Buru osasun arazoak dituzten emakumeen enplegua sustatzea.
19. Hainbat ardatz diskriminatzaile dituzten buru osasun arazoak dituzten emakumeei laguntzea (espetxean dauden emakumeak, migratzaileak, etab.)
20. Buru osasun arazoak dituzten emakumeei dagokienez, eskubide-urraketak salatzea eta ikusaraztea.
21. Mobilizazio-egunetan jarduera espezifikoekin inplikatzeko.
22. Arreta berezia sentsibilizazioan (www.mujierysaludmental.org web orri espezifikoa, emakumeen eta osasun mentalaren profilak Facebooken eta Instagramen, bideoak, liburuxkak, argitalpenak, zabalkundea, etab.)
23. Emakumeei buruzko jardunaldiak, hainbat gairi buruzkoak.



1. Erakundeak uraren kontsumoaz eta erabilera arduratsuaz kontzientziatzea.



1. Erakundeen lantokietan neurriak ezartzea ura, argia eta antzeko baliabideak ez xahutzeko.
2. Ingurumenarekiko erantzukizuneko erakundeetan sustapena.

3. Garraio publikoko txartela ematen zaie langileei, eta garraio publikoaren erabilera sustatzen da erabiltzaileentzat.



1. Elkarteetako praktika-programak. Modu kontsolidatuan egiten da. Kasu batzuetan modu profesionalean integratu dira.
2. Gure enplegu-programetan dauden pertsonen barne-kontratazioa. Administrazio-taldeari emandako laguntzaren adibidea.
3. Enplegu-programen bidez, zailtasunak dituzten pertsonentzako enplegu-aukerak sortzea.
4. Buru osasun arazoak dituzten pertsonen enpleguari buruzko foroak eta ekitaldiak egitea.
5. Elkartrukea enpresekin, buru osasun arazoak dituzten pertsonen kontratazioa sustatzeko (lan-gosariak enpresekin, etab.).
6. Enplegu-prospekzioak enpresetan, kolektiboaren ohiko enpleguari laguntzeko, enplegua sustatzeko programen bidez.
7. Enplegu-esparruko sareetan parte hartzea, ordezkatzeko ditugun pertsonentzako baldintza hobekak lortzeko.
8. Enpresa-eremuan aliantzak sustatzea, buru osasun arazoak dituzten pertsonak kontratatuzko.
9. Enplegu-nitxo berriak sortzea, hala nola nekazaritza ekologikoa, buru osasun arazoak dituzten pertsonen enplegua emateko.
10. Esparru horrekin lotutako ikerketak, aldarrikapenak eta eskaerak egitea.
11. Elkarte gisa, Buru Osasuna Euskadi federazioari lotutako erakundeek enplegua sustatzen dute, zuzenean kontratatutako profesionalen kopurua handituz.



1. Berrikuntza-politikak ezartzea: enplegu-zentro berezian, onurak instalazioen hobekuntzan berrinbertitzen dira.
2. Erakundeen barruko berrikuntza, zeharkako ardatz gisa, "berrikuntza-banku" gisa, laguntzeko metodologia hobetzea, etab.
3. Kudeaketa-tresnak hobetzea erakundeen barruan.
4. Zerbitzuen proposamena hobetzea, programa espezifiko eta berritzaileen bidez beharrak etengabe hautematean oinarrituta.
5. Suizidioak prebenitzeko proiektu pilotua, landa-inguruneko ikastetxeetako programetan berrikuntza gisa. Berrikuntza, premia hautematean oinarrituta.
6. Berrikuntza gaixotasun mentala duten pertsonen sexualitateari arreta emateko programarekin.

7. Berdeguneen eta basoen garrantziari eta horiek buru osasunean duten inplikazioari buruzko programa berritzaileak, naturako eta buru osasun programa espezifikoen bidez.
8. Berrikuntza, gizarte-zerbitzuen euskal zorrotik kanpo geratzen diren programen bidez.
9. IKTei buruzko prestakuntza-programak, zailtasun gehien dituzten erabiltzaile jakin batzuen eten digitala hausteko.



1. Diskriminazioa, eskubideen urraketa eta desberdintasuna eragiten duten buru-nahasmenduei lotutako estigma desagerrarazteko programak, ekintzak eta sentsibilizazioa.
2. Pertsonen autoestigma gutxitzeko ekintzak
3. Estigmaren eta diskriminazioaren kontzeptuari buruzko lan proaktiboa familiekin.
4. Sentsibilizazio-, salaketa-, defentsa- eta eskubideen sustapen-jarduerak.
5. Buru osasun arazoak dituzten pertsonen diskriminazioa murrizteko ikerketak eta azterlanak, bereziki diskriminazio anizkoitza duten emakumeena.
6. Eragin politikoa eta zaintza, proiektuetan, aurreproiektuetan, planetan eta, oro har, administrazioak sortutako araudian eta dokumentazioan diskriminazioak ezabatzeak.
7. Bizimodu independentea izateko eskubidea sustatzea.
8. Gizarteratze-proiektuak hainbat eremutan: enplegua, komunitate-eremua, etab.
9. Eskubideak defendatzea, pertsoneri eta familiei zerbitzu juridikoa emanez.
10. Espetxeetan esku hartzea, espetxeratuak gizarteratzeko.



1. Sakabanatze geografikoa eta baliabideak eskuratzeko aukera txikiagoa duten landa-eremuetako ekintza eta programa zehatzak. Landa-eremuan Gizartean Esku Hartzeko Programa.
2. Gizarte-, kultura- eta kirol-arloko eragileekin lankidetzan egindako ekimenetan parte hartzea. Adibidez, udaleko gizarteratze-mahaietan parte hartzea.
3. Komunitateko eta auzoetako proiektuak bultzatzen parte hartzea (lan-mahaiak, jaietan parte hartzea, etab.).
4. Komunitatean duen eragina, inklusioan aurrera egiteko.
5. Proiektuak ingurune komunitarioetan, buru osasun arazoak dituzten pertsonak gizarteratzeko.

12 EKOIZPEN ETA
KONTSUMO
ARDURATSUAK



1. KM0 hornitzaileentzako kontsumoa eta hurbiltasuna sustatzea Buru Osasuna Euskadi federazioko erakundeek bultzatutako etxebizitza-programetan.
2. Nekazaritza-ekologiaren kontsumoa sustatzea, nekazaritza-ekologiako finkak diren enplegu-zentro bereziak sortuz.
3. Gure ekintzetan karbono-aztarna murrizteko, berrerabiltzeko eta murrizteko barne-politikak (ekintzak, produktuak eta ekoizpen-metodoak), gure baliabideak erabiltzeko gomendioak ezarriz eta horiek murriztea eta garraio publikoa nahitaez erabili behar izatea sustatzen duten desplazamendu-irizpideak ezarriz.

13 KLIMAREN
ALDEKO EKINTZA



1. Klima-aldaketari buruzko sentsibilizazio- eta prestakuntza-programak eta klimaren aldeko ekintzen konpromisoa.
2. Energia aldetik eraginkorrak diren sistemak erabiltzea, iturri berriztagarrietatik datozenak.
3. Garraio publiko hedatuenaren erabilera, barne-politiken bidezko sustapena.
4. Klimak osasun mentalean duen eraginari buruzko sentsibilizazioa.

14 ITSASPEKO
BIZITZA



1. Planetaren zaintzari buruzko sentsibilizazio-programak.

15 LEHORREKO
EKOSISTEMETAKO
BIZITZA



1. Planetaren zaintzari buruzko sentsibilizazio-programak.
2. Naturari, mendiei, basoei eta abarrei balioa ematea eta horiek osasun mentalean inplikatzea naturako eta osasun mentaleko programa espezifikoien bidez.



1. Sentsibilizazio- eta salaketa-jarduerak: artatzen ditugun pertsonen eskubideen ezagutza eta defentsa bultzatzea.
2. Buru osasunari lotutako estimuari buruzko azterlanak eta sentsibilizazioa.
3. Justiziara berdintasunez iristeko kezka, irisgarritasun unibertsalaren (kognitiboa ere bai) beharrezko baldintzak bermatuz eta laguntza doituak emanez, beharrezkoa denean.
4. Doako aholkularitza juridikoa sareko pertsoneri eta familiei.
5. Espetxe-eremuko programa, bazterkeria-egoeran dauden espetxean dauden pertsonekin esku hartzen duena, askatasunean bizitzeko prestatzeko prozesua.
6. Erakundeen gobernantzan jardunbide egokiak bultzatzea.
7. Entitateetan kode etikoa eta jokabide-kodea ezartzea.
8. Gardentasuna sustatzeko jardueren memoria urtero egitea.
9. Buru Osasuna Euskadi federazioko erakundeek etengabe zaintzen dute baliabide publikoak gizarte-sarera iristen direla eta irabazirik ez dutela lortzen kudeaketa horretara.
10. Prestakuntza-jardunaldiak profesional soziosanitarioentzat, udaltzaingoarentzat, buru osasun arazoak dituzten pertsonekin lotutako edo haiekin harremana duten beste kolektibo batzuentzat.
11. Buru Osasun arazoak dituzten pertsonen parte-hartzea bultzatzea: emakume-taldeak, erabiltzaileen batzordeak, emakumeen berdintasunerako arloa, lehen pertsonako batzordeak, zuzendaritza-batzordeetan eta komunikazio-ekintzetan parte hartzea, posizionamendua, etab.
12. Buru Osasuna Euskadi osatzen duten elkarte eta federazio guztiak onura publikokoak direla aitortzea, eta horrek kontuak eta egindako jarduerak urtero ematea dakar.



1. Aliantza eta koordinazioa Foru Aldundietako Gizarte Ekintza Sailekin eta Osakidetzarekin, zehazki, osasun mentaleko sarearekin.
2. Herri-administrazioarekin lankidetzan aritzea: autonomia-, lurralde- eta udal-administrazioarekin.
3. Sareen Sarean eta Edekan parte hartzea.
4. Udal, probintzia eta autonomia-erkidegoko hainbat mahai eta forotan egotea.
5. Probintzietako eta udal garrantzitsuenetako desgaitasunen kontseiluak.
6. Aliantzak eta lankidetzak auzo-elkarteekin eta hirugarren sektoreko beste erakunde batzuekin.
7. Sektoreko patronalean parte hartzea.

8. Ikerketa eta azterlanetan beste erakunde batzuekin lankidetzan aritzea.
9. Enplegu-arloko sareetan parte hartzea.
10. Prestakuntza- eta ikerketa-arloan unibertsitateekin lankidetzan aritzea.
11. Estatuko Buru Osasun elkarte-mugimenduan parte hartzea, lantaldeetan eta batzordeetan.
12. Espainiako Buru Osasuna elkarteko Estatuko Emakumeen Sarea eta autonomia-erkidegoko eta estatuko lehen pertsonako Batzordea.
13. Herri-administrazioekin eta sektore pribatuarekin eta enpresa-sarearekin eragile anitzeko aliantzak sustatzea, lan-merkatu inklusiboak sustatzeko eta lan-merkatuan sartzeko zailtasun handienak dituzten pertsonak laneratzeko aukerak sortzeko.
14. Sistema publikoak eta lankidetzak publiko-sozialekoak defendatzea.
15. Enpresa-sarearekiko aliantzak.

BURU OSASUNA EUSKADI ELKARTE-MUGIMENDUAREN ESKAERAK GJH ETA AGENDA 2030i DAGOKIENEZ

2030 Agenda eta Garapen Iraunkorreko Helburuak anbizio handikoak eta erronka handikoak dira, inplikaturako eremu guztien mugimendu eta bultzada kolektiboa eta konpromiso komuna behar direla ulertzeko.

Beharrezkoa izango da hainbat eremuren inplikazioa eta koordinazioa, bai eta Buru Osasuna Euskadi elkarte-mugimendua 2030 Agendaren helburu komun eta anbiziotsu hori lortzeko beharrezko ikusten dituen ekintzak eta lan-ardatzak inplementatzea ere.

Buru Osasuna Euskaditik hainbat eskaera identifikatu ditugu, Garapen Iraunkorreko Helburuetarako ibilbidean mugimendu kolektibo arrakastatsua izaten laguntzeko.

Ondoren, eskaera horiek GJHak biltzen dituzten ardatz edo arlo tematikoen arabera taldekatuko ditugu.



Pertsonak

1. Diru-sarrerak bermatzeko sistema bultzatzea, buru osasuneko arazoak dituzten pertsonen bizimodu duina eta independentea izateko eskubidea bermatzeko. (GJH 1 eta 2).
2. Prestazioen arteko bateraezintasunak ezabatzea, lanaldi partzialeko lanekin eta abarrekin osatu ahal izateko. (GJH 1).
3. Pertsonen egoera berezietara egokitu daitezkeen prestazioak. Kasu batzuetan ez da gomendagarria izaten, osasun egoera dela eta, lanaldi osoko enplegua. (GJH 1).
4. Kotizazio gabeko pentsioen zenbatekoa handitzea, bizitza duina izateko eta elikadura egokia izateko aukera ematen duen ardurapeko seme-alabagatiko prestazioa. (GJH 1 eta 2)
5. Izapide burokratikoak. Tramite guztiak leihatila bakar batean egin ahal izatea erraztea. Egoera bereziak dituzten pertsonen irisgarritasuna hobetzea. Hizkuntza erraza ezartzea. (GJH 1).
6. Administrazioako profesionalek buru osasuneko arazoak dituzten pertsonen egoerari buruz duten ezagutza eta sentsibilizazioa hobetzea. (GJH 1).
7. Etxerik gabeko pertsonen eta buru osasuneko arazoak dituzten pertsonen elikadura-premiei erantzutea, beharrezko laguntzarik ez badute. (GJH 2).

8. Besteak beste, psikiatriaren eta haur-psikologiaren arretan estaldura publikoa duten programak zabaltzea eta hobetzea. (GJH 3).
9. Sistemen arteko koordinazioaren beharra (sozio-sanitarioa, sozio-hezitzailea, sozio-laborala, justizia). Zirkuituak ez dira jariakorrak, ezta sistemen barruan ere. (GJH 3).
10. Elkartze-preskripzioa. Osasun-sistematik ez dago gure elkarteetara bideratzerik. Buru Osasuna Euskadiko erakundeek sistema desberdinen arteko bisagra gisa funtzionatzen dute, eta ez da behar adina aitortzen. (GJH-3).
11. Informazio sistemak hobetzea, informazio gehiago behar izatea, senideei informaziorik ez ematea (GJH 3).
12. Sistema eta baliabide humanizazioa. Toki eta arreta humanizatuagoa (GJH 3).
13. Erakundeek Administrazioari, sistemei eta abarri zuzendutako prestakuntza-ekintzak bultzatzea, aurreko puntuak hobetzen laguntzeko. (GJH 3).
14. Aitorpena: erakundeen proposamenak praktikan jartzea eta transbertsalitatea. Ekintzara eraman (GJH 3).
15. Estigma desagerrarazteko estrategia, pertsonen osasunean aurrera egiteko. (GJH 3).
16. Instituzioetan estigma ezabatzea; izan ere, buru nahasmenduari buruzko estigma estrukturala dago oraindik erakundeetan. (GJH 3).
17. Erakunde guztiek buru nahasmenduen garrantziaz eta gazteengan duen eraginaz kontzientzia hartzea. (GJH 3).
18. Buru osasuneko arazoak dituzten adingabe eta gazteen aukeraberdintasuna sustatzeko beken gastu publikoa handitzea (GJH 4).
19. Buru osasuneko arazoak dituzten haur eta gazteei buruzko praktika egokiak identifikatzea. (GJH 4)
20. Hezkuntza esparruan buru osasuneko prestakuntza eta espezialistak bermatzea (orientatzaileak, etab.) (GJH 4)
21. Garrantzitsua da irakasleak buru osasunari buruz prestatzea eta sentsibilizatzea.
22. Hezkuntza-eremutik eta lehen haurtzarotik buru osasunaz hitz egin ahal izatea normalizatzea, hezkuntza-oinarritik buru nahasmenduei lotutako estigma soziala saihestea. (GJH 4)
23. Indarkeria matxistaren ondorioz etxetik alde egin behar duten buru osasuneko arazoak dituzten emakumeen eskubideen urraketaz jabetzea (batzuetan, harrera-etxeetan onartzeko zailtasunak izaten dituzte). (GJH 5).
24. Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeak artatzen dituen lanbide-eremuko prestakuntza, buru osasuneko arazoak dituzten emakumeek eskubide berberak izan ditzaten, jendeak sinetsi eta babestuak izan daitezten, eta harrera-etxeetara, aldi baterako egonaldietara eta abarretara joan daitezten. (GJH 5).
25. Emakumeen arretan buru nahasmenduei buruzko estigma ezabatzearen garrantzia. (GJH 5).
26. Arreta emakumearengan jartzen da, landa-eremuan ugaritzen baitira buru osasuneko arazoak dituzten emakumeen desberdintasunak. (GJH 5)
27. Kontuan hartzea buru osasuneko arazoak dituzten emakumeen interseksionalitatea. Bertan, hainbat ardatz diskriminatzaile daude, hala nola gaixotasuna, desgaitasuna, mendekotasuna, generoa, estigma, eta beste ardatz batzuk, hala nola adina, gizarte-maila, eta abar. (GJH 5).
28. Buru nahasmendua duten emakumeen parte-hartzea bultzatzea, zerbitzu publikoek emakume gehiago bideratzea elkarteetan parte har dezaten. (GJH 5).
29. Enplegua lortzen duten buru osasuneko arazoak dituzten emakumeen kopurua handitzea, egungo defizita murrizteko (GJH 5 y GJH 8).



Oparotasuna

1. Energiaren fakturak ordaintzeko laguntzak ezartzea diru-sarrera falta edo diru-

sarrera txikiak dituzten eta buru nahasmendua duten pertsonentzat,

- energia eskuragarria lortu ahal izateko. (GJH 7).
2. Energia-azpiegiturak eraldatzeko elkarreentzako laguntzak (GJH 7).
 3. Buru nahasmenduagatik ezgaitasuna dutenentzako berariazko lan eskaintza publikoan lanpostuak gordeko direla bermatzea, beste ezgaitasun batzuetarako dauden moduan. (GJH 8).
 4. Lan-eskaintza kopurua handitzea eta hobetzea; enplegu arruntean, oraindik ere estigma dago buru nahasmendua duten pertsonak erantzukizuneko lanpostuak hartu ahal izateari dagokionez. Enplegu-sareak gaitasun edo kualifikazio txikiko lan-aukerak bidaltzen ditu, pertsonak erantzukizun handiagoko lanpostuetarako kualifikazioa izan arren. (GJH 8).
 5. Buru nahasmenduagatik desgaitasuna duten pertsonen kontratazioa gehiago sustatzea (enpresentzako laguntzekin) (GJH 8).
 6. Lan-administrazioa, justiziako eta abarretako (Lanbide) teknikariek buru osasuneko arazoak dituzten pertsonen egoerari buruz duten ezagutza eta sentsibilizazioa hobetzea (GJH 8 eta GJH 10).
 7. Erakundeei aukera gehiago ematea berrikuntza eta ikerketa finantzatzeko (GJH 9).
 8. Erabiltzaile batzuen eten digitala kontuan hartzea, IKTetan sartu ahal izateko. (GJH 9).
 9. Araudia egokitzea, aurre-erretiroko aukerak banan-banan baloratu ahal izateko buru nahastearen ondoriozko ezgaitasuna duten pertsonen egoera desberdinetan. (GJH 10).
 10. Estigma desagerrarazteko estrategia egitea buru nahasmendu duten pertsonentzat, aurkitzen dituzten desberdintasunak murrizteko (GJH 10).
 11. Justiziarako sarbidea izatea, buru osasuneko arazoak dituzten pertsonen justiziara iristeko laguntzak eskainiko dizkien bideratzailearen figura ezartzea. (GJH 10 y GJH 16).
 12. Zerbitzuak desgaitasunen bat duten pertsonen ingurutik hurbil egon daitezen erraztea. Elkarri lotutako euskarri-zerbitzuak egon daitezen bultzatzea. Erraz ulertzeko moduko hizkuntza erabiltzea (adibidez, informazio-kartelak), pertsona guztien ulermena errazteko. (GJH 11)



Planeta

1. Planeta zaintzeko sentsibilizazio programak bultzatzea. (GJH 13, GJH 14, GJH 15)
2. Ura, elikagaiak, produktuak eta abar arduraz kontsumitzeko kanpainak bultzatzea. (GJH 6, GJH 12)
3. Natura eta buru osasuna (basoak, mendia, etab.) balioesten dituzten programei laguntzea ematea, natura zaintzeko sustapen gisa (GJH 15)
4. Klima-aldaketak pertsonen buru osasunean duen eragina ezartzea, OMEren txostenaren arabera. (GJH 13).



Bakea & Lankidetzza

1. Justiziarako sarbidea, buru osasuneko arazoak dituzten pertsoneri justizia eskuratzeko laguntza eskainiko dien bideratzailearen figura ezartzea. (GJH 16)
2. Administrazio publikoekin egin beharreko izapideen arintasuna eta eskuragarritasuna sustatzea, bereziki, egoera ahulean dauden pertsoneri aukerak eskuratzeari zuzenean eragiten dioten egoeretan. (GJH 16).
3. Administrazio publikoan irisgarritasun unibertsaleko neurriak ezartzea (GJH 16).
4. Ezgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentzioaren ezagutza eta aplikazioa bultzatzea. Ezgaitasunak eragindako gorroto-delituen aurkako neurriak (GJH 16)
5. Eskatzen da erakundeek Buru Osasuna Euskadi osatzen duten elkarteak osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonen eta haien familiek bizi duten errealitatearen prospektore gisa ikustea. (GJH 17)
6. Buru Osasuna Euskadi elkarte-mugimendua osatzen duten elkarteek denbora eta dedikazio baliabide asko bideratzen dituzte foroetan, mahai-inguruetan eta abarretan parte hartzeko, eta gero kostatzen da emaitzak ikustea eta ekintzara iristea. Erakundeek ekarpenak kontuan hartzeko deia. (GJH 17)
7. Gizarte-eraldaketarako hezkuntza sustatzea, GJH horietako pedagogia egiten laguntzeko tresna gisa, eta, horretarako, eskubideen ikuspegia sartzea. Politikei koherentzia ematea. (GJH 17)
8. Lankidetzza Buru Osasuna Euskadirekin eta haren elkarteekin, Agenda 2030 herritarren artean zabaltzeko eta sentsibilizatzeko (GJH 17).
9. Enpleguko, gizarte-zerbitzuetako, etxebizitzako, hezkuntzako eta osasuneko sistema publikoak koordinatzea, gizarte-bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden buru osasuneko arazoak dituzten pertsoneri ikuspegi integraletik arreta emateko. (GJH 17)

2030 Agendaren eta GJHen gakoak, gure ikuspegitik

- ✓ Buru osasuna ardatz traktorea izan behar da. Buru osasunik gabe ez dago osasunik, zentroan jarrita bakarrik lortuko dugu ongizate-kuota handiagoak gizartean.
- ✓ Buru Osasunak GJH guztietan eragiten du, eta, beraz, bizitzaren iraunkortasunaren ardatz artikulatzailea izan behar du.
- ✓ 2030 Agendak desgaitasunen bat duten pertsonen nazioarteko Konbentzioaren mandatu, balio eta printzipioez ikasi behar du.
- ✓ 2030 Agendak pertsonengan izan behar du fokua, 'Inor atzean ez uztea' goiburuaren arabera.
- ✓ 2030 Agendak Buru Osasuna Euskadi elkarte-mugimenduko erakundeen parte-hartzea eta baterako gobernantza izan behar ditu.
- ✓ Bizitza modu iraunkorrean garatzeko politiken koherentzia, osasun mentala ezin da 3. GJHtik bakarrik landu; horregatik, GJH bakoitzean aintzat hartuko duen politiken koherentzia egon behar da.

Buru Osasuna Euskadi federazioko konpromisoak eta helburuak 2030 Agendari dagokionez

Buru Osasuna Euskadi eta hura osatzen duten elkarteek GJHekiko eta Agenda 2030rekiko konpromiso nabarmena dute gaur egun. Elkarteen eguneroko lanean egiten diren ekintza, politika eta lan-ardatz gehienek zuzenean edo zeharka bultzatzen dute GJHetako bat, dokumentu honetan zehaztu den bezala. Horrez gain, Buru Osasuna Euskadi federazioak konpromiso horren ildotik jarraitu nahi du, epe laburrean helburu kualitatibo eta kuantitatiboak ezarriz GJHak bultzatzen jarraitzeko. Helburu kualitatibo zein kuantitatibo horien jarraipena egingo dute urtero Buru Osasuna Euskadiko elkarteek.

HELBURU KUALITATIBOAK:

- ✓ Estrategia-planak eta ekintza-planak GJHekin lerrokatzea.
- ✓ GJH gure ekintzetan ikusaraztea.
- ✓ Buru osasuneko arazoak dituzten pertsonen bizi-baldintzak hobetzeko lan egitea.
- ✓ Buru osasuneko arazoak dituzten pertsonen eta haien senideei laguntzeko berariazko programak garatzen jarraitzea, administrazioa finantzaketan inplikatur, gaur egun finantziario pribatu edo propioan oinarritzen baitira. GJH 3
- ✓ Hezkuntza arloan sentsibilizazio eta prestakuntza ekintzak egitea, besteak beste. GJH 4
- ✓ Genero-berdintasunaren eta emakumeen aurkako indarkeria desagerraraztearen alde lan egiten jarraitzea. GJH 5
- ✓ Buru osasuneko arazoak dituzten pertsonen enplegua sustatzea. GJH 8
- ✓ Buru osasuneko arazoak dituzten pertsonen arteko desberdintasunak murrizteko araudia eta estrategiak sustatzeko lan egitea, estigma ezabatzeko ahalegin berezia eginez. GJH 10
- ✓ Buru osasuneko arazoak dituzten pertsonak justiziara iristeko bideratzailearen irudia bultzatzeko lan egitea. GJH 16
- ✓ Erakundeei buru osasunari eragiten dioten alderdi guztietan laguntzen lagunduko dieten baliabideak mobilizatzeko aliantzak bultzatzea. GJH 17

HELBURU KUANTITATIBOAK:

- ✓ ZEHARKAKOA → Plan estrategikoen eta ekintza-planen % 50 gutxienez GJHekin lerrokatzea.
- ✓ ZEHARKAKOA → GJHei lotutako ekintzen %100 ikusaraztea.
- ✓ GJH 1 → GJH 1ari dagokionez, bizi-kalitatea hobetzea bultzatzen duten urteko ekintzen kopurua handitzea. (Foroetara joatea, araudiari ekarpenak egitea, ekintza espezifikoak)
- ✓ GJH 3 → Elkarrekin kudeatutako baliabideak handitzea, buru osasuneko arazoak dituzten pertsonen eta haien senideei erantzun hobea eman ahal izateko.
- ✓ GJH 3 → Haur eta gazteen esparruko programetarako baliabideak handitzea.
- ✓ GJH 3 → Bizitza independenteko baliabideak handitzea buru osasuneko arazoak dituzten adineko pertsonentzat.
- ✓ GJH 4 → Gutxienez 4 intzidentzia-ekintza egitea, hezkuntza-erakundeetan urteko prestakuntza-kopurua handitzeko.
- ✓ GJH 4 → Hezkuntza-erakundeetan emandako prestakuntzen kopurua handitzea.
- ✓ GJH 5 → Artatutako emakumeen ehunekoa orekatzea, gure elkarrekin artatutako gizonen ehunekoarekin alderatuta.
- ✓ GJH 5 → Buru osasuneko arazoak dituzten emakumeei zuzendutako ekintzen kopurua urtero handitzea.
- ✓ GJH 5 → Emakumeen ehunekoa handitzea entitateen programa, zerbitzu eta jardueretan.
- ✓ GJH 5 → Buruko nahasmendua duten emakumeen aurkako indarkeria matxistari buruzko sentsibilizazio-ekintzak egitea.
- ✓ GJH 5 → Familiako zaintzaren arloan gizonen erantzunkidetasuna eta parte-hartzea sustatzeko ekintzak egitea.
- ✓ GJH 8 → Elkarrekin artatzen duten kolektiboaren enpleagarritasuna hobetzen duten ekintzen kopurua handitzea, aurreko urtearekin alderatuta.
- ✓ GJH 8 → Entitateen enplegu programetan parte hartu duten pertsonen ondorengo kontratazio kopurua handitzea, aurreko urtearekin alderatuta.
- ✓ GJH 10 → Urtero estigma desagerrarazteko eragina duten ekintza berriak sortzea.
- ✓ GJH 16 → Ekintzak sustatzea, buru osasuneko arazoak dituzten pertsonak justiziara iristeko bideratzaile baten figura sustatzeko.
- ✓ GJH 17 → Esparru desberdinekin aliantzak egitea, entitateei buru osasuneko arazoak dituzten pertsonen laguntzeko programak garatzen lagunduko dieten baliabideak sustatzeko.





**SALUD MENTAL
BURU OSASUNA**
EUSKADI *Fedeafes*